

Apirilaren 21ean
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA

Agurra

Jesus piztuarekin hitzekin agurtzen zaituztet: Bakea zuekin!

Sarrerako oharpena

Atzo gauean, Pazko Gaubeila santua ospatzean entzun genuen Ebanjelio mezua oihartzun bezala ari da oraindik: «Ez dago hemen: Piztu da». Kristo bizi dela gogorarazten digu; Gugatik piztua izan dela. Hori dela Ebanjelio ororen muina. Jainkoak baietz esan dio bere Semearen eskaintzari, eta heriotza desegina geratu da betiko!

Jesus Piztua gure artean dugula, ospa dezagun pozez Eukaristia.

Pazkoaldiko igandeetan damu-otoitzaren ordez ur-zirtaketa egitea da egokiena. Gaur, ordea, zirtaketa fede-aitorpenarekin lotua proposatzen dugu.

Aintza zeruetan

Pozez beterik, Kristoren garaipena ospatuz, kanta dezagun zeruko eta lurreko Elizarekin batean Jainkoaren aintza.

Otoitza

**Jainko Jauna,
 egun honetan heriotza garaitu duen zure Semearen bidez
 betiereko biziaren ateak ireki dizkiguzu;
 iguzu, gure Jaunaren piztuera ospatzen dugunok,
 Espiritu Santuak berriturik,
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen testigantza entzungo dugu orain bi irakurgaietan. Jesusen piztueraren berri ematen duen Pedrorena eta Bataioaz Kristoren Piztueran parte hartu dugula esaten digun Paulorena. Biak ditugu Elizaren oinarri eta on egiten digu bere hitz bizkortzaileak.

Lehenengo irakurgaia (Eg 10, 34a. 37-43)

Apostoluen eginetatik

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua; eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin baitzegoen.

Gu gara, Hark judutarren lurretan eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Haiek, habe batetik zintzilikatu eta hil egin zuten. Baina, hirugarren egunean Jaungoikoak piztu egin zuen, eta agertzea eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jaunak lehendik aukeratutako testigui baizik: guri, Hura hilen artetik piztu ondoren, Harekin jan eta edan genuenoi.

Eta agindu zigun, herriari erakuts geniezaiola eta aitortu, Bera dela Jaungoikoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek egiten diote aitormen: Harengan sinesten duten guztiek hartzen dutela, Beraren izenean, bekatuen barkamena».

Erantzun-salmoa (Sal 24, 4-5. 6 eta 7cd. 8-9)



Hau e - gu-na au, Jau - nak e - gi - na, gu -
re po-za ta gu - re a - tse - gi - na.



Eskerrak Jaunari, ona baita,
 Haren maitasuna betikoa baita.
 Israel etxeak hau esan beza:
 «Haren maitasuna betikoa.» R/.

«Jaunaren eskuinak nau altxatu,
 Jaunaren eskuina bizkor da jokatu.»
 Hil ez, baino bizi naiz egingo,
 Jaunaren eginak nik oihu egingo. R/.

Etxegileek baztertutako harria,
 berori gertatu da giltzarria.
 Jaunak egin du hori,
 gure begien harrigarri. R/.

Bigarren irakurgaia (Kol 3, 1-4)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabiltzate goi ondasunean bila, han baitago Kristo Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk. Irrika itzazue goiko ondasunak, eta ez lurrekoak. Hil baitzarete; eta zuen bizia Kristorekin Jaungoikoarengan ezkutaturik dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko zarete aintzaz Harekin batean.

Edota: (Kol 3, 1-4)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Ez al dakizue, legami apur batek ore guztia harrotzen duela? Bazter ezazue legami zaharra, ore berri izan zaitezten, ogi

hila zaretenez gero. Opari eskainia izan baita Kristo, gure bazko bildotsa. Ospa dezagun, beraz, Bazko jaia, ez legami zaharrarekin —ez ustelkeriazko eta gaiztakeriazko legamiarekin—, egiaren eta zintzotasunaren ogi hilekin baizik.

Aleluia (1 Ko 5, 7b-8a)



Opari eskainia izan da Kristo,
gure pazko bildotsa.
Ospa dezagun, beraz, Jaunarengan. R/.

Ebanjelioa (Jn 20, 1-9 edota, arratsaldean: Lk 24, 13-35)

Homiliarako argibideak

Eraman egin dute hilobitik

Gure herrialdeak bizitako aldaketa azkarrek ezustean harrapatu dituzte asko eta asko, eta ez dute erreakzionatzeko astirik izan, ia. Eliza ere galdua dago. Iraultza isila gertatu da, benetan, eta konturatu nahi dugunerako, arrotza zaigun mundu batean gaude, ezagutzen ez dugun mundu batean. Desagertu egin da nolabaiteko **mundu familiar eta idilikoa**, hainbesterainokoa ez zena, agian; gure mundu horretan, etengabe agertzen ziren fedea eta kristau balioak atseginez begiratzen genuen agertokian. Gaur egun, mundu hori eramán egin duten sentazioa daukagu, ostu egin diguten sentazioa, eta ez dakigu non dagoen.

Gurutziltzaketaren ezustekoa handia izan bazen, ez zen txikiagoa izan ikasleek piztuerarekin, Jesusen gorpuaren desagertzearekin, esperimentatu zutena. Pedrok eta ikasle kuttunak zuten emakumeek eta bereziki Maria Magdalenak esaten zutena egiaztatzeko ardura. **Baliozko lekukotza** eman dezakete haiek. Bai Mariak eta bai ikasleek hutsik ikusiko dute hobia, Jesus meztitzeko erabilitako bendak eta hil-oihala alboan. Zaila da hortik ezer ondorioztatzea. Bi ikasle horiek ere ez zituzten ondorio berdinak atera, antza.

Poliziako inspektorea dirudi Pedrok, gauzak zertan diren kontu hartzen. Desagerpenak iradokitzen du ez dutela gorpu ostu, beste zerbait gertatu dela, txukunegi baitago dena. Ikasle kuttunak ere burutzen du ikuskatzea, baina piztu egin dela uste du. Nola iritsi da ondorio horretara? Bat-baten Jesus hilen artetik piztuko zela zioten **Eskriturak** ulertuta. Piztueraren aurretik, ez zegoen iragarpen haiek ulertzeko modurik. Orain, argi dago dena, eta Eskriturak iragartzen zutena sinesten dute.

Zer da sinesten dutena? Lehenik eta behin, Jesus bizirik dagoela. Jaun berpiztua haiek ezagutu zutena da, sinetsi eta jarraitu zutena, haren bitzita publikoan bizilagun izan zutena, Hura Israelgo Mesia. Jainkoaren behin betiko errebelazioa, zela sinetsita. Jaun berpiztuarekin elkartu zirela erakusten du horrek, zalantzarik gabe. Jesus bere ikasleei agertu izanaz mintzo dira ebanjelioak. Ez dira agerkunde horiek ikasleen fedearen oinarria. **Berpiztutako pertsona bera** da haien fedearen oinarria, bizi dena, komunitatean presente dagoena, haren **Espirituaren** bitartez.

Alde horretatik, gure fedeak duen funtsa du apostoluen fedeak. Ez da berpiztuaren agerpena, horren **presentzia aktiboa** baizik, gure bizitzan esku hartzen duena, aurrea hartuz beti. Hil izanaren eta Kristorekin piztu izanaren kontzientzia dugu guk, berpiztuaren nahia bizi baitugu gugan, Jainkoaren nahia. Behin betiko ondasunak ditugu helburu, lur honetako ondasunak erabilia.

Mundu honetan gauden bitartean, ez da argi eta garbi azaltzen piztueraren errealitatea gure bizitzan. Jesus loriaz itzultzen denean, garaile agertuko gara gu ere, Harekin.

Zer gertatu zaio gure fedeari? Agian, formaz, sinboloz, balioz betetako kanpoko mundu bati lotuta zegoen, eta presio sozialak eusten zion, kanpoko forma horiei guztiei zentzua ematen zien **berpiztuaren** benetako **esperientziarik** gabe. Agian, makaldu egin da gure fedea, eta ez da gai herritar guztiek balio gisa onartuko dituzten balioak sortzeko. Agian, hori ez da posible, gaur egun. Interpretazio eta balioen inguruko etengabeko gatazkan bizi gara. Baina ez dugu zertan desanimatu eta gure fedea alde batera utzi, horregatik. Aitzitik, zenbat eta biziagoa izan, are erakargarriagoa izango da. Horregatik, eukaristiaren sakramentuan elikatzen saiatzen gara, berpiztuarekiko topaketan, egun ditugun erronken aurrean sendotu dadin.

Bataioko aginduak berritzea

Senide maiteok: Atzo Pazko Gaubeilan handikiro egin genuen moduan, Bataioko aginduak berrituko ditugu: Satanasi eta haren egiteei uko eginez, Eliza santu katolikoaren jarraitzaile izango garela hitz eman dezagun.

Uko egiten al diozue Satanasi?

R/. Bai, uko egiten diot.

Eta haren egite guztiei?

R/. Bai, uko egiten diot.

Eta haren bekatubide guztiei?

R/. Bai, uko egiten diot.

Sinesten al duzue Jaungoiko Aita ahalguztiduna, zeru-lurren Egilea?

R/. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Haren Seme bakar Jesu Kristo, gure Jauna, Maria Birjinagandik jaioa, oinazetan hila eta hobiratua, hilen artetik piztua eta Aitaren eskuinaldean jarririk dagoena?

R/. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Espiritu Santua, Eliza santu eta katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, haragiaren piztuera eta betiko bizitza?

R/. Bai, sinesten dut.

Jaungoiko ahalguztidunak, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak, uraren eta Espiritu Santuaren bitartez jaiotza berria eta bekatuen barkamena eman digunak, Berak gorde gaitzala, Kristo gure Jaunagan, betiko bizitzarako. R/. Amen.

Batzar-buruak herria bataio-urez zirtatuko du une honetan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza Elizaren Buru eratu izan denari, eska diezaigun, bere maitasunez, eman diezaiela zoriona, poza eta alaitasuna bere garaipena ospatzen dutenei. Egigun otoitz. R/.
- Kristori, bere piztueraz gure piztueraren atak zabaldu dituenari, eska diezaigun alai dezala oraindik bere garaipena ezagutzen ez duten gizakiak eta Ebanjelioaren bidez poztu ditzala herri guztiak. Egigun otoitz. R/.

—Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egigun otoitz. R/.

—Kristori, bere pizturaz mundu osoa alaitu duenari, eska diezaiogun berri dezala gure espiritua eta eman diezagula bere garaipenean parte hartu eta bizi berrira pizteko itxaropena. Egigun otoitz. R/.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrean goستن zaitu eta adoratzen zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxopena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

II. UKARISTI OTOITZA PAZKO ZORTZIURRENEAN

«Gogoa izan, Jauna» berezia

(Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Igandea arte)

Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zeure Eliza: gaur, hemen bildurik, Jesu Kristo gure Jauna piztu zeneko [gau santua] egun santua ospatzen ari den Eliza; eramazu maitasun osora I. Aita Santuarekin, I. gure artzainarekin...

III. UKARISTI OTOITZA PAZKO ZORTZIURRENEAN

«Entzun bihotz onez» berezia

(Pazko Gaueko Mezatik II. Pazko Igandea arte)

Entzun, bihotz onez, zure aurrera deitu duzun familia honen otoitzak. Jesu Kristo gure Jauna bere gorputzean piztu zeneko [gau santua] egun santua ospatzen dugun honetan. Aita guztiz ona, ekarri Zuregana mundu zabalean banaturik dabilzan zure seme-alabak.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko Aita, zaindu ezazu zeure Eliza maitasun handiz
pazko-sakramentuez berriturik
piztueraren argira iritsi dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 53. orrialdean*)